

Prensa-komunikatua

“Emakumea eta Lurraldea #defensoras” biraren Ondorioak

Lehenengo eta behin euskal solidaritateari eskertu nahi diogu gure presentzia hemen bermatu izana, mila esker. Momentu hau aprobetxatu nahi dugu euskal erakunde publikoen konpromisoaren beharra gogorarazteko, Giza Eskubideen kentze eta zaugarritasunari amaiera emateko ezinbestekoa baita.

Mehatxatuta gaituzten enpresa transnazioaletako batzuk Euskal Herrikoak izan arren, konturatzen gara sozietate zibilak ez duela munduaren ikuspegi esplotatzaile hori partekatzen.

Honegatik, lehenengo eskertu nahi diegu 2014tik hona Erdialdeko Amerikako gure borroketan laguntzen diharduten Lumaltik Herriak-i eta Berdinak Gara-ri itzuli hau antolatu izana; euskal gizarte osoari ere eskertu nahi diogu bere harrera eta elkarteei, ikastetxeei, emakume-taldeei, proiektu alternatiboei eta beste beste mugimendu sozial batzuei ere espazioa eta ahotsa eskaini digutelako.

Erdialdeko Amerikako lurraldea gaur egun kapitalismo oldarkorrenaren esperimentazio-laborategietako bat da, ingurumen-suntsiketak, naturaren ustiatzea eta komunitateen kanporatzea eragiten ari dena, han bizi garen herrietako On Biziari zuzenki eraso egiten.

Erresistentzia-prozesuen buruzagiak garen emakume defendatzaileok oligarkia eta kapitalaren arteko aliantza basatiari aurka egin behar diogu, gure kontra zirikatzek, bortizkeria instituzionala eta botere politiko eta ekonomikoen aldetik difamazio kanpainak ere jasan behar izaten ditugulako. Eraso eta difamazio sexista hauek defendatzaileak eta baita emakumeak garenon gure lanari ospea kendu nahi diote. Gure erresistentziak, nahiz eta baketsua izan, min handia eragiten du, guretzako kostu izugarriak dauzkalako, maila pertsonalean, familiarrean eta baita taldekoan ere. Horregatik

gure istorioak partekatu eta idazteko beharra sentitzen dugu, gure borrokak ahaztuak ez izateko. Ikusgarri egin behar gara ahotsik eta bizitza gabe geratu direnen hitza izateko.

Nazioen arteko solidaritatearen garrantzia aldarrikatzen dugu, munduko herrialde desberdinetako herrien arteko sareak sortzearen garrantzia. Elkarrekin lotzen gara ez soilik sistema neoliberal eta heteropatriarkalaren erasoei aurre egiteko, baita ordezeko modelo bat kolektiboki eraikitzeke asmoz, feminista eta inklusiboa dena, eta gure Lurra eta beregan bizi garen guztiok ere errespetatzen gaituona. Ez dugu mundu honetan gainbizi nahi baizik eta bete-betean bizi, osotasunean.

Guk Etxe Komunaren alde elkartu nahi dugu. Gure lurraldearen aurkako erasoak, nahiz eta guri era desberdinean eragin, gu guztion aurkako erasoak dira: Erdialdeko amerikarrak, euskaldunak, mundu guztiko herritarrak. Denok dugu geure Ondasun Komunak zaintzeko ardura, gure ibaiak eta mendiak babesteko, hain harraparia den modeloaren ordezeko aukerak eraikitzeke, gu guztiok zaintzen gaituen mundu bat lortzeko.

Gaur eta hemen gizarte zibilari egin nahi diogu deia eraso egiten diguten enpresen gainean presioa egiteko eta lurralde eta giza-eskubideen aldeko defendatzaileen salaketa eta solidaritate kanpainen ere laguntzeko, Lumaltik Herriak eta Berdinak Gara sare sozialetan eta #Ozenesan #Defensoras #Alzalavoz hashtags-en bitartez zabaldu dituztenak bezalakoak.

2019an zehar eta beharrezkoa den bitartean, Berdinak, Lumaltik eta Erdialdeko amerikar elkarteok lurraldearen defentsaren inguruko gogoeta hauetan lanean jarraituko dugu. Azaroan berriro elkartu nahi gara defendatzaileon babeserako zaintzaz hitz egiteko eta lurraldearen defentsarako ikuspuntu feministaren beharra azpimarratzeko, babestu beharreko lehen lurraldea geure gorputza dela oso argi izanda.